



www.tolosa750.net webgune berria aurkeztu dute

GAIA ▶ 750. urteurreneko Fundazioak bultzatu du eta Tolosaldea Goi-Mailako LH Institutuak egin du; herriari buruzko informazioa emango du ▶ 2



Egileak eta udal ordezkariak atzoko prentsaurrekoan. I. LEXEBESTE



Pello Zabala, irrati uhinetatik telebista saio bateko aurkezle izatera

AMEZKETA ▶ Urtetan Euskadi Irratian eguraldi eta musika programak egiten aritu ondoren, duela gutxi ETB1eko *Buruz buru* programa aurkezten hasi da Pello Zabala frantziskotar amezketa-rra. Egiten dituen elkarrizketetan «ezagunaren alde ezezaguna eta xumea ateratzen» saiatzen dela adierazi dio HITZARI. Bere gai horietaz gain, Amezketa, haurtzarora, Arantzazu eta egoera politiko-koa ere izan ditu hizpide fraileak. NOELIA LATABURU ▶ 5

txapelketa 05

hitza

alebinen
FINALERDIAK

**Apeztegia-Arizmendi
Matxinea-Arratibel**

**Luzia-Manzisor
Etxeberria-Arozena**

**Ekainak 17
ALBIZTUREN
19:00etan**

Antolatzailea:
AURRERA-SAMAZ FLUTA ESKOLA
Laguntzaileak:
Adunako Udala / Bidegoingo Udala /
Albizturko Udala / Alegiako Udala /
Tolosaldea Udala / EROSKI / FREDI /
PASABAN / DIVA / REVIGLASS /
LAEX / FRONTON JAITEKIA /
ARALAR KIROLAK

TOLOSAREN 750. URTEURRENA ▶

www.tolosa750.net

Tolosa 750 Fundazioak eta Tolosaldea Goi-Mailako LH institutuak web orrialde berria aurkeztu dute

IRATXE ETXEBESTE

Tolosa 750 Fundazioak eta Tolosaldea Goi-Mailako Lanbide Heziketa institutuak web orrialde berria aurkeztu dute. Atzo egin zuten ekimena aurkezteko prentsurrekoa udal-txean, eta dagoeneko martxan den www.tolosa750.net web-gune horrek informazio zabala eta erabilgarria eskainiko die herritarrei hemendik aurrera. Halaxe esan zuen, behintzat, Fundazioaren arduradun Gurutze Zubeldiak.

Izan ere, herriari buruzko nondik norakoak emango ditu ezagutzera testuen eta irudien bitartez: datu historikoak, Fundazioaren inguruko xehetasunak, argitalpenak... «Atal estatikoak izango dira horiek, mugituko ez direnak», argitu dute web orrialdearen arduradunek. Horiez gain, ordea, «zati dinamikoagoak» ere izango ditu: besteak beste, Fundazioak sustatzen dituen produktuak erosteko denda, iradokizunak egiteko atala, edota herriari buruzko albisteen berri ematen duena.

Azken atal horri albistegi@ deitu diote webgunearen sortzaileek. Tolosako berriak bilduko dituen buletin elektronikoa da, eta euskaraz eta gaztelaniaz egingo dute, astean bitan: astelehenetan eta ostiraletan, hain zuzen ere. Fundazioa-



Esquer-eskuin: Jesus Arregi, Tolosaldea Goi-mailako LH institutuko zuzendaria, Jose Francisco Cuervo tutorea, Oskar Gesteira eta Josu Sanchez orrialdearen sortzaileak; bien artean Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta eskuin-eskuinean Gurutze Zubeldia, Tolosa 750 Fundazioaren arduraduna. IRATXE ETXEBESTE

ren webgunean txertatu dute zerbitzu hori herritar guztiek ikusi dezaten; gainera, haiei «lana erraztearren», harpidedun egiten direnek e-postan jasoko dituzte albisteak.

Harpidetza web orrian bertan on-line egin daiteke, edo 750@tolosakoudala.net helbide elektronikora mezu bat bidalita. Fundazioak kudeatuko dituzte harpidetzak. «Euskarazko buletina 11:00etarako bidalia egongo da harpidedunen posta elektronikotara, eta gaztelarazkoa 12:00etarako». Web orrialdean ere ikusi ahal izango dira buletinak, hala ere.

«Gizartearentzat interesgarria den informazio zerbitzua

eskaintzea, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioari hartzaile edo bezero potentzialen poltsa bat gestionatzeko baliabidea eskaintzea eta webgune hori, www.tolosa750.net, Tolosari buruzko albisteak jasotzeko orduan erreferentziala bihurtzea» dira proiektuaren helburuak. Albistegi@ buletina bertara harpidetutako jende multzo bati e-posta bidez bidaltzeko zerbitzu gisa aurreikusia baitago, eta, horrek, «harpidetza bidez talde potentzial ugari landu ditzakeela esan nahi du. Euskararen erabilera sustatzea ere badu xede proiektuak, buletina bi hizkuntzatan egin-goto bada ere, «lehendabizi eus-

karazko bertsoia bidaliko litza-tekeelako».

Ezaugarri orokorrak

«Informazioa Interneten argitaratzeko da, beraz, ingurune horretara egokituta egongo da: trataera dibulgatzailea izango da, eta informazioari aldizkari baten estiloa emanda. Bestalde, ezaugarri laburrak erabiliko dira, eta informazioa ongi egituratua egongo da», adieraztu dute webgunearen arduradunek. Albisteen egiturari dagokionean, «albistea deskribatuko duen titular laburra, albisteen nondik norakoa modu laburrean azalduko

duen testua eta berria agertu den komunikabideko lotura—loturarik ez badu, erreferentzia—» izango ditu.

Gaien artean, berriz, administrazioa, euskara, garraioak, gazteria, gizartea, hirigintza, ingurumena, irakaskuntza, kultura, justizia, kirola, komunikabideak, merkataritza eta turismoa eta osasuna jorratzen dituzten buletinak, albistek, iritziak, adierazpenak eta aldizkari ofizialeko deialdiak bilduko ditu, eta informazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz, «modu baliokide batean», idatzita egongo dira.

Ohiko egunkarietan eta aldizkarietan Tolosarekin lotutako berriak jasoko ditu Albistegi@k: asteburuko gertaerak asteleheneko buletinaren jasoko dira, eta aste osoak ostiraletan. Beste batzuren artean, albiste iturri nagusi izango da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria.

Tolosa 750 Fundazioak Tolosaldeko Goi-Mailako LH institutuarekin elkarlanean sortu du proiektu berria. Bertako bi ikaslek, Oskar Gesteirak eta Josu Sanchezek, osatu dute orrialdea Jose Francisco Cuervo tutorearen laguntzarekin, eta urte bukaerara bitarte, behintzat, haiek arduratuko dira mantenuaz. Garbiñe Ubeda tolosarrak egin du, bestalde, web orrialdearen diseinua.

HEZKUNTZA ▶

Festa giroan ospatu dute Ingurumen Eguna Samaniego ikastetxeok

Zenbait konpromiso hartu eta Bandera Berdea jarri zuten; jolasak ere izan ziren

LEIRE MONTES

Joan den astean, Ingurumen Egunaren harira, zenbait ekintza burutu zituzten Samaniego

ikastetxean. Ekitaldi guztiek aurten ikasleek landu duten gaia izan zuten abiapuntu: aisialdia.

Jolasekin eman zioten hasie-

ra egunari. Boloetan, uztail jokoan eta kolore-kolore jolasean aritu ziren, besteak beste, Haur Hezkuntzakoak. Lehen Hezkuntzakoek ere ez zuten aspertzeko astirik izan: aulki jokoak, zaku karrera, toka, zapatilaran bila, soka tira, eskia, ping-pong-a, rokodromoa, go-alball..., denetik izan zuten aukerak.

Eguerdi partean, Samaniego ikastetxeo gimnasioan egin-dako ekitaldian, *Parkeak zaintzen gaitza jolasten* dokumentuan hartutako konpromisoak adostu zituzten ikasleek. Samaniegoko Ingurumen Batzordekoek azaldu dutenez, «aisialdirako konpromisoak edo portaera kodea irakurri genuen, eskua altxa genuen adostasuna adierazteko, eta txostena sinatu. Bitartean, Ingurumen Batzordeko ikasleek eta ikastetxeo abesbatzak



Samaniegoko ikasleak, Ingurumenaren Egunean, jolasean. HITZA

bertsoak eta kantak abestu zituzten».

Esku soinuez lagundurik, lortegira abiatu ziren guztiak ekitaldia amaitutakoan. Bertan

jarri zuten, urtero legez, Bandera Berdea: ingurumenaren aldeko lanaren ispilu, eta aurrera begirako asmoen erreferente.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Telefona: 605 72 77 30.

Sukaldaria.

Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33ra.

PILOTA ▶



Jokin Bildarratz alkateak atzo sinatu zuen hitzarmena Aspeko eta Asegarceko ordezkariekin. I. ETXEBESTE

Urtebeterako akordioa sinatu dute Udalak, Asegarcek eta Aspek

Lehenengo mailako bost partida jokatu dituzte urritik urrira artean Beotibarren; sanjoanetan partidua izango da

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udalak hitzarmena sinatu zuen atzo pilota munduan aski ezagun diren Aspe eta Asegarce enprekin hitzarmenaren harira, hainbat konpromiso hartu dituzte enpresa horietako ordezkariak eta udal arduradunek bata bestearerako. Hala, hitzarmenaren adostutakoaren arabera, Aspe eta Asegarce enpresek bost pilota jaialdi antolatuko dituzte datorren urritik 2006ko urrira bitartean herrian, Beotibar pilotalekuan.

Hitzarmenaren berri

Jaialdi edo partida horiek guztiek 1. mailakoak izan beharko dute ezinbestean, eta horietatik hiru Udalak aukeraturako egunetan jokatzekoak izango dira; beste biak, berriz, enpresek hautatu ahal izango dute noiz egin.

Jokin Bildarratz alkateak, alde batetik, hitzarmenaren «garrantzia» izan zuen aiputuan, hemendik aurrera «ziurtua» egongo delako «pilota jaialdi entzutesuetako batzuk herrian bertan egitea». Era berean, Aspe eta Asegarce enpresetako ordezkariak («pozik») zeudela adierazi zuten, Udalararekin lortutako akordioak «bi-

Hirurek ere argi utzi zuten azken urteetan ezinbesteko hitzordu bilakatu direla Beotibarreko partiduak data jakin batzuetan: Errege bezperan egiten dena, Inauteri jaien harira antolatzen dutena eta San Joan jaietakoa, kasu. Horiek dira, hain zuzen ere, Udalak Asperi eta Asegarceri beharrezkotzat ezarri dizkion egunak. Datorren urteko Errege bezperan eta Inauterietan pilota partiduak izango dira Beotibarren, hortaz.

Ordainetan, Udalak aukera emango die bi enpresei astelehenera Beotibarren jaialdiak antolatzeko, eta, gainera, eguerdian jokalariei entrenamenduak egiteko bidea eskainiko die bertan. ◀

de emango duelako Beotibar aurrerantzean ere indartzeko».

Beotibar pilotalekua betidanik «erreferente» izan dela onartuta, bolada batean «beherakada nabarmena» izan zuela esan zuten atzo enpre-tako eta Udaleko ordezkariak.

«Bada hutsune horiei irtenbidea eman zaie, nolabait, hitzarmena sinatu aurretik ere, azkenaldian jaialdi garrantzitsuak izan ditugulako bertan», zioen alkateak. Ildo horretatik, eta «betiere Beotibar pilotalekua eskualdeko pilotazaleentzat ez ezik, enpresetako arduradunentzat ere erakargarri bada», enbidioa luzatu nahi izan zuten Tolosak 750. urteurrena ospatzen duenean pilotako final nagusia Beotibarren antolatzeko.

Barre artean, «ekitaldi garrantzitsuak antolatzen saiatuko» direla erantzun zioten beste biek, Beotibar historia handiko frontoia izanagatik, «gabeziak ere baditu elako finala bertan egin ahal izateko».

Kontuak kontu, aurtengo sanjoanetan «etorriko» direla egin zuten zin: zehazki, San Joan egunean. Oraindik osatzeko dute egun horretarako egitaraua, baina partidua izan izango da. «Aspe eta Asegarceren arteko jaialdi mixtoa, agian, ikusiko dugu».

GASTRONOMIA ▶

Tolosako Babarrunaren Kofradia Oviedon izan da

Lurraldeetako Ardo eta Gastronomia Kofradien I. Biltzarran hartu du parte



Tolosako Babarrunaren Kofradiakoak eta Gomez Elozegi zinegotzia (lehen ezkerretik), Oviedon, desfilea eta gero. HITZA



Gaiteroen doinupean desfileatu zuten 32 kofradiak. HITZA

LEIRE MONTES

Lurraldeetako Ardo eta Gastronomia Kofradien I. Biltzarra izan zen, pasa den asteburuan, Oviedon (Asturias, Espainia). 32 kofradia elkartu ziren bertan, Euskal Herrikoak, Frantziakoak, Espainiakoak eta Portugalgoak. Hain zuzen ere, Tolosako Babarrunaren Kofradiak ordezkatu zuen Euskal Herria.

«Turismo eta kultura alorrean gastronomiak duen garrantzia ezagutzera ematea eta gehigarri kimikorik gabeko sukaldaritza tradizionala babestea» zuten, besteak beste, helburu biltzarrak. Politikariak, nekazaritzako elikagaien industriako ordezkariak, merkataritzakoak, medikuntzakoak eta kofradiak beraiek beren esperientziak azaldu zituzten jendaurrean.

Tolosako Babarrunaren Kofradiakoek postu bat jarri zuten «gure produktuak ezagutarazteko»: babarrunak, teilak eta zigarriloak, Ibarrako piperrak, odolkiak... Tolosaldeko baliabideen eta eskualdean egiten diren hainbat jardueraren berri ematen zuten liburuxkak ere banatu zituzkien bertaratutakoek. Gainera, 350 lagunentzako bazkari gozoa prestatu zuten. Menua? Tolosako Babarruna, nola ez.

Biltzarraren parte-hartzaile guztiek desfilea egin zuten Oviedoko kaleetatik, gaiten doinupean.

Josemi Gomez Elozegi Garpén Ekonomiko, Turismo eta Enplegu zinegotziak, Udalaren izenean, «III. Biltzarra antolatzeko eskaini» zuen Tolosa. 2007. urtean, beraz, herrian izango da kofradien topaketa handi hau.

VILLABONA ▶ EUSKAL PRESOK



Julen Zelaraini lehen harrera egin zioten herrian

Erredakzioa ▶ Julen Zelaraini lehenengo harrera egin zioten astearte gauean hainbat lagun eta herritarrek. 01:30ak aldera iritsi zen Villabonara Zelarain, Soto del Real espetxetik 21:00etan askatu ondoren. 80 bat lagun zeuden zain eta ikurrinen artean hartu zuten Zelarain, bere semea eskutik zuela. Ondoren, Eneko Gorostidi preso

ohiak lore sorta eman zion eta dantzari pare batek aureskua dantzatu zioten. Horren ondoren, Iratzar elkartera abiatu ziren eta bertan Julen Zelarainek bere argazkia kendu zuen. Ongi etorri omenaldia etzi egingo diote Zelaraini 18:00etan. Ondoren sagardotegia egingo da eta izena emateko Iratzar elkartera jo behar da. ASIER ETXANIZ

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Hilketaren bideo irudiak azaldu dira

Hilketa eta sutearen egilea dela aitortuz eskuizkribua aurkitu diote Apaolazari

ERREDAKZIOA

Herenegun Manuel Apaolaza zaintzaile zizurkildarraren gorpua aurkitu ondoren, datu gehiago jakin dira Foru Ogasuneko Errotaburu eraikineko gertaeraren ondoren. Radio Euskadi eta Euskadi Irratiak atzo jakitera eman zutenez, ikerketaren iturriak aipatuz, Apaolazaren poltsikoan Donostiako Ogasuneko gertatu zen heriotzaren aitortza egingo lukeen eskuizkribua aurkitu dute.

Horretaz gain, Foru Ogasunaren egoitzan gertatutako ezbeharraren berri ematen duen segurtasun bideo bat agertu da. EITBko irratiek adierazi zuten. Bertan, zaintzaile zizurkildarra Florencio Parrari tiro

egiten dion uneko irudiak ikusi omen daitezke. Bideoak jasotzen dituen irudiak igande goizeko 07:00etakoak dira, hots, sua piztu baino zenbait ordu lehenago, suaren alarma 23:00etan piztu zen eta. Hilketa jasotzeaz gain, bideoak ere hartu omen ditu ondoko unekak, Apaolaza tiroak utzitako odola garbitzen ari zenean hain zuzen ere. Bestetik, Manuel Apaolaza paper multzo bati su ematen ikusten diren irudiak ere aurkitu omen dituzte. Irudiok 22:30ekoak dira.

Manuel Apaolaza zaindaria- ren poltsikoan gertatutakoaren aitortza egingo lukeen eskuizkribua aurkitu badute ere, ikerketaren iturriek adierazi zuten, Apaolazak idatzia den zehaztu behar zuten oraindik.

MUNDU BAT HAMAIIKA LEKU

18 bidaiak

txina

karibe

andaluzia

mallorca

kantabria

Ekainaren 19tik aurrera

Kupoi guztiak bidai gero, autorako egurrikotako jaso- dudu opart.

berria

EROSKI bidaiak

berria

VILLABONA ▶ MENDIZALETASUNA

Lasturretik Oriora ibiladia igandean

Euskal Herriko hiriburuak uztaiz egitasmoaren baitan, Aizkardi M.E.ak Lastur eta Orio bitarteko ibilaldia antolatu du iganderako. Lasturretik atera eta, besteak beste, Endoia gainetik igaro ondoren, Zestoara iritsiko dira. Hortik Aizarnara joango dira eta gero Pagoeta (716 metro) igoko dute. Bertatik Aiara joango dira ondoren Oriora iristeko. Guztira 6,5 orduko ibilbidea izango da eta 25 kilometro egingo dituzte mendizaleek. Izena emateko telefonoz deitu daiteke 943 69 44 58 zenbakira (Joxanengandik galdetu) edo Aizkardiren egoitzara azaldu gaur 21:00etatik 22:00etara.

ASTEASU ▶

Udaleku irekiak antolatu ditu Udalak uztaierako

Udaleku irekiak antolatu ditu Asteasuko Udalak. Uztaieraren 4tik 22ra bitartean egingo da, 09:30etik 13:00etara. Lau eta 12 urte bitarteko haurrek hartu dezakete parte eta eskulanak, kirola, igerilekura eta hondartzar irteerak egingo dituzte. Matrikulak 45 euro balio ditu eta bihar bukatzen da izena emateko epea. Bestalde, begiraleak behar ditu Udalak eta bihar bukatzen da ere horretarako izena emateko epea.

ASTEASU ▶

Kirolerako eta euskara ikasteko laguntzak

Udalak kirol laguntzak eta euskara ikasteko laguntzak eman- go ditu. Kirolari dagokionez, onuradunak 1985eko urtarri- laren 1az gerotik jaiotako gazteak dira. Dagokion federazio- aren 2004-2005 denboraldiko txartela hilaren 24a baino lehen Kultur Etxean aurkeztu behar dute. Epe berdinerako eta leku berean euskara ikasleek dagokion euskaltegia ordain- dutako matrikularen agiria aurkeztu behar dute.

PELLO ZABALA ▶ FRANTZISKOTARRA, TELEBISTA AURKEZLEA

«Ezagunaren alde ezezeguna eta xumea ateratzen saiatzen naiz»

Amezketako frantziskotarra eguraldi gizon lanetan ikusi dugu urteetan; egun, 'Buruz buru' saioa aurkezten du

NOELIA LATABURU

Bere beharrek aske uzten duten tarte gutxien barruan artatu du HITZA Pello Zabalak, Arantzazu eszenatoki paregabean. «1943ko ekainaren 2an jaio nintzen...». Horrela ekin zion amezketarrak elkarrizketari, irrifarrea ahotan. Orduetik, hamaika istorio, hamaika lanbide, hamaika gertakari... Guztiatarako astirik ez, baina zenbaitzuetaz jardun zuen adeitsu, Pernando amezketarra arbaso duen fraileak.

Lanbide askotan aritu ostean aurkezle amaitu duzu telebistan. Nola bizi duzu proiektu hau?

Proposatutako zidatenean oso zaila iruditu zitzaidan, ez baitut nik kazetari sena landu. Konfesionarioan galderak ez egiten irakatsi ziguten eta 'Ni nola sartuko nauk hemen?' pentsatu nuen. Baina erronka polita iruditu zitzaidan. Pertsonaia ezagun hauen alderdi xume eta ezezaguna ateratzen saiatzen naiz. Emaizak, gainera, arras aberasgarriak dira.

Euskal Herria osoak begiratu du zurekin batera zerura. Nola sortu zen eguraldi gizona izatearena?

Erdi txantxetan hasi nintzen kontu honekin eta helburua, gehienbat, Arantzazuren izena irratian entzutea zen. Hasieran ez nuen eguraldiaren iragarpenik egiten, hemen zein tenperatura zegoen esaten nuen bakarrik. Handik gutxira, iragarpena egiteko eskatu zidaten Euskadi Irratitik. Horrela 1985etik 2004era arte egon naiz egunero. *Klasikoak gaur* saioa ere zuzendu dut 1982tik 2004era arte.

Galdera ekidinezina: zer uda iragartzen dute tenporek?

Hasiera batean, udara ona eta sana espero da gurean, ez NASAtik iragarri duten bezain beroa. Dena den, barnealdean beroa handiagoa izango da haize leunekin.

DI-DA BATEAN ▶

Eguraldirik onena? Inguru honetan egun guztiak dira onak, egun bakoitza maite dudalako. Gazteetan, behelainoa nuen gogoko.

Aurkezle bat? Susana Mujika.

Nor elkarrizketatuko zenuke? Lehenago Setien esangonuke, baina egin dut dagoeneko. Beraz, egungo gotzaia, Juan Maria Uriarte.

Politiko bat? Politikari lanetan bat ere ez, ez baitira benetan diren bezalakoak azaltzen.

Liburu bat? Axularren *Gero Gogoa* duzun **une bat?** Lur Santuetarra bidaia egin nuen.

Ahaztu nahiko zenukeena? 9 urterekin aita zena hil zenekoa.

Hainbeste urte eta gero, nolatan erabaki duzu uztea?

Egun, Euskalmet zerbitzuari esker, informazio hori eskuragarri dago. Bestetik, 19 urtez izandako loturatik askatu nahi nuen. Dena den, ez naiz batere damutzen.

Txikitatik erabaki zenuen Amezketatik utzi eta Arantzazura joatea.

Gazteetan egiten genituen txago bakarrak eskolatik Donostiara eta gure etxetik Arantzazura izaten ziren. Azken hau ikusterakoan, nire barruan erroto zen nolabait eta 8 urte nituela Arantzazura etorri nahi nuela esan nuen etxean. Esan eta egin: 10 urterekin etorri nintzen eta orduetik hemen jarraitu dut. Tolosako frantziskotarrengana jo nuen eta ateak zabaldu zizkidaten.

Eta orain, nolako da egorran hemen, Arantzazun?

Fraileak adinean gora goaz. Zahar asko ditugu eta hauek zaintzeko astia iritsi da. Hala, ber, erromes eta turistak la- gundu ahal izatea nahi dugu.



NOELIA LATABURU

Lan asko dut: mezak, ezkontzak eta organoa jotzea.

Zer oroitzapen dituzu Amezketan emandako urteetaz?

Zorte handiko umea izan nintzen. Anaia zaharrena nintzen eta amak hezi ninduen. Txikitatik irakatsi zidan irakurtzen, bai eta doktrina. Memoria bisuala ikaragarri landu nuen. Eskolan ere zortea izan genuen, izan ere maisuak euskaraz mintzatzen uzten zigun.

Euskara eta musika dituzu zalelasun handienak.

Bai. Gazteetan, Arantzazun euskaraz zeuden liburuak irakurtzen nituen. Salbatore Mitxelenaen euskal poemak eta beste hainbat liburu. Arantza-

zun ordu bete baino ez zitzaion ematen euskarari. Mezan ere ia dena latina zen, igandeko sermoia izan ezik. Musikari dago-kionez, txikitik pianoa jotzen ikasi nuen, eta gero organoa. Hogeita bost urtez izan naiz Arantzazuko organista. Orain, berriz, ezkontzetan jotzen dut. Nire filosofia eta Teologia ikasketak egiten nituen bitartean, bi alor hauek landu nituen. Urruneko proiektu bezala euskal musikaren historiaren bilketa egin nahiko nuke.

Aukera Guztiak alderdiaren bultzatzailea izan zara. Nola ikusi dituzu azken hauteskundeetako emaitzak?

Gizartea lozorrotik atera nahi

izan genuen. AG komenentzia dela-eta kanporatu zuten eremu politikotik. Orduan, EHAK-ri eman zitzaion aukera eta aspaldiko urteetan atera den mapa fidelena lortu da hauteskunde hauetan, eta hau pozgarria da.

Askok diote, egungo egoerarekin, bake eszenatoki baten aurrean gaudela.

Bozketaren gau berean ikusi zen konponbide bat egon zitekeela. Baina politikariek ez dute arriskatu nahi eta horregatik bihurtzen da zaila. Izan ere, Euskal Herrian lortzen dena, Espainia eta Frantziako gobernuek bertan behera utzi dezakete.



UDA HONETAN JANTZI EZAZU HITZAREN KAMISETA

IBARRA ▶ JAIK

Jai giroan murgilduko da herria asteburuan

Bihar gauean hasiko dira Gazte Festak; Kauta, EH Sukarra, Sioux eta Captain Nemoren kontzertuak, besteak beste



EH Sukarra eibartarren eta Kauta andoindarren musika entzuteko aukera izango da, besteak beste. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Bihartik igandea bitarte jai giroa nagusituko da Ibarrran, Gazte Festak izango baitira. Ibarrrako Gazte Asanbladak antolatzen dituen jaiak aurten *Gure herria, zuen herria, herriari galdetu!* izango du lema bezala. «Ibarrrako herrian Udalak egin nahi duen hiriritar planaren ondorioz, aukeratu dugu aurtengo lema; hau da, 1.200 etxebizitza inguru daude orain eta 600 gehiago eraiki nahi dituzte, herriko lur eta baratza ia guztiak suntsituz, eta gainera, proiektua dekretuz egin dute, herritarro ezer galdetu gabe», azaldu dute.

Egitarauari dagokionez, «Gazte Festei urteroko kutsua ematen saiatu gara, ohiko ekitaldiak ahaztu gabe, baina berrikuntzak sartuz», adierazi dute antolatzaileek. Horrela, berrikuntzen artean igandean

izango den gazte *playlist*-a eta goitibera jaitziera azpimarratu dute.

Musika kontzertuei buruz, «denon gusturako kontzertuak egiten saiatu», direla esan dute. Eta diru aldetik, «zailtasun handiak» izan badituzte ere, EH Sukarra, Kauta, Sioux eta Captain Nemo bezalako taldeak izango dira, besteak beste, asteburuan zehar. Hain zuzen, ostiralean, Villabonako Gaztearen alde Villabonan egingo den manifa, jaietia hasiera emango dien txupinazoa eta barrikotearen ondoren Andoingo Kauta eta Eibarko EH Sukarra taldeen kontzertua izango dira plazan doan, eta bi talde hauek gain, Iruñerriko Batukada Supongo? taldea ibiliko da kalea animatzen.

Larunbatean, berriz, berbernak hartuko du txanda, izan ere, Laiotz taldeak eskainiko du dantzaldia eta hauek jotzen

duten bitartean Atarrabiako Gas taldea ariko da kalea eta txosnak girotzen. Eta festak amaitzeko, igandean, Gaztearen izango da jaialdia, 21:00-etan hasita Sioux —lehen Kaos Etiliko— eta Captain Nemo taldeekin.

Ondo pasa eta musikaz gozatu nahi duenak Ibarrra gerturatu besterik ez du asteburu honetan. Ibarrrako Gazte Asanbladako eskualde osoa gonbidatzen dute Gazte Festa hauetan parte hartzera.

Aparkatze mugatua

Bestalde, Ibarrrako Udalak adierazi du, ekainaren 19an igandean, Gazte Festen barnean antolatu den goitibera jaitziera dela eta 15:00etatik 19:00etara San Bartolome kalean —kiroldegitik plazara bitartean— ezingo direla autoak aparkatu.

IBARRA ▶ KIROLA

Giro bikainean igaro dute eguna Gorritin

I. Terradillos ▶ Haitzetan Raju mendi taldeak Gorritin mendi irteera antolatu zuen ekainaren 5ean. 35 lagun inguru bildu ziren giro ederrean. Eta Gorritin zikiro jate bikaina izan zuten. Erresuma Batuko ibiltari baten konpainia «atsegina» ere izan zuten. Hurrengoan ere antolatuko dutela adierazi dute eta eskerrak eman dizkie aurtengo parte hartu dutenei. HITZA



BELAUNTZA ▶

San Joan jaietako bazkarirako txartelak salgai

Datorren ekainaren 23tik 26ra bitarte izango dira Belauntzan aurtengo San Joan jaiak. Larunbatean, ekainaren 25ean, egingo da herri afaria Pagadi anaiak trikitalariek alaiturik eta bertara joateko txartelak eskura daude Belauntzako udaletxean 15 euro ordainduta.

TOLOSA ▶

Langile bat zauritua trenbidean

Herenegun gauerdian Zuzentza Jauregiaren parean trenbidean trintxera bat egiten ari zirela langile bat zuhaitz batetik erori zen sorbaldan kolpe handia hartuz. Anbulantzia bat etorri eta Asuncion klinikara eraman zuten. Zauritua 31 urteko gizon bat da, eta J.R.J. Sabadellen (Bartzelona) jaioa eta MPA enpresako langilea zen.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asuncion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶

Liburutegia Nafarroako sarean sartuta dago jada

Bertako katalogo guztia informatizatu ondoren, nonahitik kontsulta daiteke

J. ASTIBIA

Leitzako herri liburutegia Nafarroako Herri Liburutegien Sarean sartu berri da eta euskarri berri honekin, etxeetatik ez ezik, Internet-a eskura dagoen non-nahitik kontsultak egitea, aukeran eta eskura izanen dute erabiltzaileek.

Horretarako nahikoa da www.navarra.es. Nafarroako Gobernuko web orrian sartu eta atari horretan erdi-erdian dagoen «Herri liburutegiak etxean» dioen leihatilan klikatzea: Nafarroako Herri Liburutegien katalogoan geundeko istanteko. Zerbitzuaz baliatzeko euskara aukeratzea ere, batere gaizki ez.

Aurreko hilabeteetan Leitzako liburutegiko katalogoaren informatizazio lana burutzen aritu dira eta bukatuta dagoelarik, sarean zintzilikatu dute. Modu berean Nafarroako beste 38 herritan ere. Horrela, liburutegien erabiltzaileek eskura dituzte, herri horietako guztietako liburutegietako katalogoak eta baita Nafarroako Liburutegi Orokorrean dauden dokumentu, liburu eta argitarapen guztiak ere, eta, jakina da inprenta asmatu zenetik Nafarroari buruz edota Nafarroan argitaratu den guztia-aren gordailu dela erakunde hori.

Bilatzen dena hemengo edo besteko liburutegietan baden edota maileguan hartzeko moduan dagoen jakiteko, izenburuaren, egilearen, urtearen, gaiaren... arabera egin daiteke, erraz aski.

LEITZA ▶ AISIA

Igerilekua ireki dute jada

Itxuraz eta zerbitzuz berrituta «eguraldi onaren zain», herritarrei bertara joateko gonbidapena egin diete; umeei ikasturtea bukatu arte, arratsalde irekiko dute

JAIONE ASTIBIA

Atzo arratsaldean ireki zuten Leitzako igerilekua: eguraldi sargori eta eguzkitsuarekin, lehendabiziko bustialdia hartzea bertaratu zenik izan zen; neskato eta mutiko kozkorak gehienak, putzu garbi-garbian murgiltzera ausartu ziren, urak «fresko samar» egon arren: saltoka eta ziprirtinka, ez zuten halakorik nabaritzen beraiek, ordea: «Sartzerakoan pixka bat nabaritu dugu, baina orain berotu da», zioten.

Normala ere bada, izan ere «bi egun bakarra igaro dira putzua bete dela», azaldu zuten atzo bertako arduradunek eta «eguzkiaren berotasun gutxi hartu du oraindik», zioten. Kontuak kontu, uda usainean, oporraldiak ate joka direla, irekita dago jada igerilekua. Argitu zuten, «hilaren 24a arte, orduan bukatzen dute eta ikasturtea umeei», arratsalde irekiko omen dute asteregunetan eta asteburutan, «orduan bai, egun osoan: 11:00etatik 20:00etara», zehaztuz. Behin oporrak hasita, «erabat» irekiko dute.

Aipatzekoa da, eta bertan egiaztatu zitekeen, «itxura berrituta» ageri zirela igerilekuko instalazioak. Izan ere, txoko guztiak margotu berri baitituzte, apaingarritarako herriko bi gazte oraindik ere egiten ari diren hormirudia barne, eta bestalde, tikieneztat txirista eta kulunka pare bat ere jarri dituzte taberna aurreko lorategian, bertan jostatu nahi dutenentzat. Helduenentzat ere bada berrikuntzarik denboraldi honetan: hamaka zerbitzua. Egun osorako edo erdirako, alokatzeko aukera jarri baitute.

Parke tikiak kolorea ematen du, baita terrazan prestatu dituzten mahai eta aulki tiki ur-



Eguzkitan, nahiz itzalean; handiek nahiz txikiak, patxadan egoteko leku polit askoa dute. JAIONE ASTIBIA



Mutiko eta neskatoek estreinatu zuten atzokoan igerilekua aurtengoz, saltoka nahiz baloiarekin... J. ASTIBIA



din-gorri-berdeek ere: «Urtebetetze festak, arratsaldekoak... ere prestatzeko aukera eskainiko dugu», adierazi zuten. Tabernan, jatekoa ere ematekotan baitira: «Otaratekoak, pintxoak eta baita plater konbinatuak ere emanen ditugu», zioten. Hori bai bezperatik jakinaraztea komeni eta esker-tuko dute.

Dena prest bazuten ere, «ur-duri» samar zebiltzan atzo, aurreneko eguna izaki. Baina «ohituko gara» zioten.

«Udalak ezarri dituen prezioen arabera», argitu zuten, denboradirako bonoak egiteko aukera ere zabalik omen dago, kiroldegiko bazkide izan edo ez, eta adin desberdinentzat, hainbesteko baliokoak. Infor-

mazio hau igerilekuan nahiz kiroldegian ere eskura dagoela adierazi zuten edo deitzea nahikoa omen da.

Orain herritarrek joatea da gelditzen dena, bai eguzkitara, igeri egitera «edo besterik gabe, zerbait hartuz, sahasen itzalean patxadan egotera» eta bertan lanean ari diren lagunek eskuzabal hartuko dituzte.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Nolako oporrak dituzu gustuko? Bidai antolatua, mobila bizkarrean abentura bila, kostaldera eguzkia hartzea edo Euskal Herria ezagutzea? Bidali zure erantzuna eta eman zure iritzia gai honi buruz Hitzaren webgunean.

LEITZA ▶ KIROLA

Razkini zilarrezko domina eman diote

Herenegun, Nafarroako Gobernuko informazio orrian azaldu zenez, Jose Mari Razkin leitzarrari, kirol merituari zilarrezko domina ematea erabaki du Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu baten bidez: «Aurrera K.E.an, 25 urte baino gehiagoan futbolari eskaini dion dedikazioagatik», oharrak azaltzen zuenez. Sarituarekin hurremanetan jarrita, ingurukoek adierazi zuten, ez omen zuten horren berri zuzenik jaso, beraiek ere prentsan irakurritakoa besterik ez zekitela baieztatu zuten. Eta atzo ere berdin. Edozein moduz, «sorpresazko berri guztiak horrelakoak balira, gustura hartzeko modukoak lirakeela», zioten.

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Praktikak hilabetez HITZAN
uztailean edo irailean

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa
lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko
ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 - atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
(ekainaren 20a baino lehen)



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Batasunaren batzarra ziklo politiko berriari buruz, udaletxean 19:00etan.

Aitzo. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia 19:00etan musika gelan.

Ikaztegieta. Hirugarren adinekoei zuzendutako *Etxeko arriskuak eta lehen laguntzak* hitzaldia eskainiko du Garbiñe Agirrek, kiroldegian 17:00etan.

Tolosa. Adinekoren Astea lurreamendin: 10:00etan unitate psikogeriatrikako erresidententzat meza, 11:00etan Ertzaintzaren Musika Bandaren kontzertua eta 17:00etan txokolatada lorategian.

Tolosa. Tolosa CFko bazkideen ez ohiko batzarra egingo du 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan 2. deialdian Kultur Etxean.

Tolosa. Eduardo Mokoroa udal musika eskolako bibolina, biola, pianoa, saxofoia, akordeoi orkestra eta koroko ikasleen kontzertua 19:00etan.

SANJOANAK

Tolosa. Zesta punta txapelketako finalerdiak 19:30ean Beotibarren: Alberro-Yerobi/Mujika-Sanchez (kadeteak).

Tolosa. Igandean Orfeoiaik Leidorren emango duen opera zatien kontzerturako sarrerak salgai Kultur Etxean 10 eurotan.

Tolosa. Sanjoanetako zezenketak: 24an errehortariak, 25ean Bohorquez, Galan eta Magro errejoneadoreak eta 26an Conde, Morante eta Cayetano toreatzaileak.

Sarrerak Tolosako Asteasuarra, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan. 943 64 16 66, 659 676 570.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.
Tolosa. Tokia. Helbidea. 94? ?? ? ? ?

IRRATIA

Txolarre (FM 107, 101)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Munduko sotoak

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Eskualdeko hainbat kidek parte hartu zuten Pangea abenturako pasadizoak biltzen ditu Ander Izagirrearen liburu berriak



Herenegungo aurkezpena; Aitor Elduaien aurkezlea, egilea eta Iñaki Mendizabal argitaratzailea. J.SAIZAR

ERREDAKZIOA

Pangearen —munduko lekurik sakonenak ezagutzeko espedizioa— pasadizo batzuk biltzen dituen liburua aurkezteko Donostiako lekurik sakonenetakoa aukeratu zuen Ander Izagirre egileak, Udal Liburutegiko kriptia.

Hainbat liburu —*Palestina ombbligo del mundo*, *El testamento del chacal*, biak Pangeako pasarteekin— idatzi izan ditu orain arte idazle honek eta duela gutxi *Marca* aldizkaria-

ren saria irabazi du *Plomo en los bolsillos* liburuarekin.

2000ko irailetik 2001eko ekainera Pangea espedizioak Ipar Amerikako Heriotz Bailara (-86 m), Australiako Eyre lakua (-15m), Hego Amerikako Ika-tzaren lakua (-105m, ordu arte beste leku bat agerten zen mapa gehienetan), Europako Caspio itsasoa (-28m), Asiako Itsaso Hila (-411m), Afrikako Assal lakua (-157m) eta bere inguruak ezagutu zituen.

Ander Izagirrearekin batera eskualdeko hainbat kidek par-

te hartu zuten espedizioan: Migel Mari Elozegi eta Aitziber Olanu leitzarrak; Valentín Dorronsoro albizturarra; Eneko Imaz, Amaia Askasibar, Josu Iztueta eta Joxemi Saizar tolosarrak; Mari Juli Azkue asteasuarra; eta Marijo Arrieta, Maialen Lujanbio eta Susana Elozegi hernaniarrak.

«Liburu hau ez da bidaiaren eguneroko bat. Nire kazetari senak aginduta atera zaizkidan erreportajeak edo kronikak dira. Ikusi genuen gutzia azaltzeko sekulako liburukotea

LIBURUA ▶



Liburuaren azala. HITZA

Izenburua. *Los sotanos del mundo*.
Egilea. Ander Izagirre.
Argitaletxea. Elea
Saila. Aide.
Orrialdeak. 350.
Precioa. 18 euro.

beharko genuke eta interesgarriena aukeratu dut», azaldu zuen Izagirrek aurkezpenean. Era guztietako jendearekin gertatutako istorioak azaltzen dira liburua: militarrik, mojak, meatzariak, euskal emigrantek, artzainak, bidaiariak, kamioizaleak, arrantzaleak... Umorea «bidaiatze eta bizitzeko estrategia egokia» iruditzen zaio eta liburua idazterakoan ere tanta batzuk sartu ditu donostiarrak.

«Planeta osoa ondo miatuta dirudien garai hauetan, oraindik bidai literatura egin daitekeela frogatu nahi dut liburu honekin», erantsi zuen. Bidaiaren eta liburuen Josu Iztueta «kazetari jakinminak» asko lagundu diola erantsi zuen.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jose Luis Mayoza.
Zorionak zure lagun Maria Jesusen partetik.



ZORIONAK
Amasa. ¡¡ !! Salbajaa!
Urte askoan zuk pentsatzen dezun hoienagatik.



ONGI ETORRI PRINTZESA
Eider Tobar Larrauri (Ikaztegieta). Aitaboren eta matxoren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!